



NI EZKERRETIK, ZUEK ESKUBITIK...

NAZIO-ARTEKO UNEA

AGINTA TA UTOPIA

Partidu politikoak, estatuaren agintaritzara iritxirik ideia, dotrina edo interes batzuen neurrian gizarte berri bat jaso edo ta bertan dagoen bat defintzeko bide batzuek dira. Generalki mintzatuz eskuindarrak ordenaren —lehengo egunean esaten nuen "ezarritako desordenaren"— partidua ta ezkertiarrek mugimenduaren, aurrerapenaren, progresuaren partidua osatzen dutela esan oi da.

Eskuindarrak gizonarentzat mesfidantza aundia dute ta gauzak geiegi mugitu ez ditezten gizona ahal den lotuena nai dute. Gizona gaiztoa dela ta erremediorik ez duela pentsatzen dutelako. Ezkertiarrek berriz utopistak dirala esan oi da. Gizonarengan sinismen osoa dute. Mundu onetan gizarte justu bat jaso ditezkeela pentsatzen dute, orregatik askok utopistatzaz artzen dituzte. Utopistatzat, au da, ameslarietzaz.

Ezkertiarrak gizarte berri ori jaso naiean gatzki egina dagoen gaurko au ez dute —jakina— onartu nai. Orregatik alegindu ta saiatzan dira gizarte ori eguneratzen. Baiñan...

Ba dirudi ordea gizarte berri orren irudia bere garbitasun osoan irau erazi nai izan ezkerre ez dela posible gaur egunean agintaritzara iritxerik. Ez balda zahatu behar partidu batek ez duela sentidurik agintaritzara iritxeko ez baldin bada. Orregatik gaur egunean Europa'ko zenbait progresistek galdera au planteatu zale: zer da egin behar duguna, gure idelak osoan eutsirik opozizioan jarrai —huzarorako dirudin opozizioan— edo ta gure idelak nola ala konpondu agintaritzara iritxeko? Galdera onek ba du sentidu bat Europa'ko zenbait lekutan. Ba du edo izan lezake.

Baiñan ala ere galdera au baiño lehenago beste bi dira ezkertiarrek egin behar dituztenak. Bata: Europa'ko ezkerre ez ote da zahartu? Ez ote da erreallitateari eskapu ta lges egiteko idelismo dogmatiko batean abestu? Ezker berriaren gaitasun itzegitea gauz polifita baiñan sentidurik gabekoa ote da? Biga: ez ote da estrateji ta taktika guztia eraberritu behar?

Bi galdera oiel bafezkoa erantzun behar zaiela uste dut. Baiñan kontuz: estrateji herriak eta ezker herriak ez du esan nai burua makurtzea, eskuindarren bideetan eta jokabideetan sartzea. Bakar bakarrik auxe adierazi nai dut: ezkerre mugimenduaren eta aurrerapenaren partidua baldin bada ezin dezakela lehenago estrateji ta pentsaerekin jokatu. Pentsaerekin esan dut eta ez pentsamentuekin.

Erreboluzioak gauregun eta Europa'n ere beharrezkoak dira. Ez da ordea erreboluzio romantiku bat eta ezta ere seguru asko indarraren bitartez egindakoa. Ezkertiarrek bere gizarte berria jaso nai baldin badute agintaritzara iritxi behar dute ta or dago gaurko ezkertiarrentzat korapilorik aundiena: bere dotriñari uko egin gabe nola gobernura iritxi?

Benetako ezkertiar dotriñari eutsiaz. Eskuindarrak bai baldakite here programa azal berri baten bitartez ematen. Baita ere ba dirudi beste batzuen opozizioa dela lehengo agintarien lekura iritxera lehengo oien politikan egiteko.

RIKARDO ARREGI

DIRUETXEEN ELKARTZEAK

Oraintsu izan da albiste arrigarri bat ekonomi landan. Banco Hispano Americano ta Banco Central'en elkartzea izango ote dan. Au gertatuko balitz lau banko aundi bakarrik izango dira Espaiñ'n eta ez best Ingalterra orain diran bezela.

Espeiñ'ko bost aundiak onetzek dira:

	Dirutza (Milloi pta.)	Inoren ezartzeak (Milloi pta.)	Emantzak (Milloi)	Etzekideak
Banco Español de Crédito	3.633	71.892	506	535
Banco Hispano Americano	3.255	66.748	489	398
Banco de Bilbao	2.612	42.119	314	220
Banco Central	2.459	47.355	406	407
Banco de Vizcaya	2.858	36.242	324	243
Guziak	14.817	264.356	2.039	1.803

Ingalterra'ko bostak:

Barclays Bank	18.144	360.696	1.387	1.785
Midland Bank	14.952	323.736	1.090	2.533
Lloyds Bank	18.312	271.824	967	1.975
National Provincial Bank	11.928	176.400	685	1.273
Westminster Bank	11.760	205.632	836	1.341
Guziak	75.096	1.338.288	4.965	8.907

Alemania'n iru dira aundiak:

Deutsche Bank	10.950	201.810	1.170	629
Dresdner Bank	9.375	160.005	585	439
Commerz Bank	7.500	134.775	840	420
Guziak	27.825	496.590	2.595	1.488

Dirutza = Capital.

Inoren ezartzeak = Fondos ajenos.

Etzekideak = Sucursales y agencias.

Emantzak = Beneficios netos.

Goiko zeuztasunak 1964'ko Gabonillaren 31'an artuak dira, au da, urteko garbiketean itxi zanean. Banco Hispano Americano ta Banco Central'en elkartze ondorean sortuko liteken banko berriak izango ditu: (Zeuztasunak 1965-9-30'koak).

Dirutza: 6.804 Milloi peseta

Inoren ezartzeak: 135.021 Milloi peseta

Etzekideak: 805

Onela banko berri au nausituko liteke ta lenengo aurkintzaren jabea izango liteke Espaiñ'ko diruetxe guztieren artean.

Oraundikan agintariak ez dute zertxobait ere esan eta susmurak, susmurak bakarrik dira.

ERREXIL

O.E.A.'REN JANEIRO'KO BILLERA

Ameriketako Nazioen Organizazioaren billera aurtan Rio de Janeiro'n prestatu zuten, azillaren 17'tik 30'ra arte.

Punturik larriena Ipar-Amerikak proposatu duan Amerikako Nazio-Arteko militar indar baten sortzearen konbenientziatz, zeinen xedea izango bailitzake printzipalki komunismoaren erasoaldiri oztupoak ipintzea.

Ipar-Amerikak demokraziaren zaintzailearen papera oso serio arturik (eurak euren buruari besterik gabe egotzia), ain zuzen ere uste izan dute bere sistema (bere sistema baita, beste inorenarekin zer ikusirik ez duana, ain baita berezia), naiz politiko, naiz ekonomiko, ondasun eta zivilizazio oroen iturburu bakarra. Zer esanik ez, komunismoa, sozialismoa, eta gisako ortako beste edozein ezker-joera, guztiz desegokiak direla.

Oiek guztiak goguan arturik, ez

da arritzekoa Ipar-Amerikanoak beste gaitontzeko amerikano guzteri euren sistema berditia ezarri nai izatea.

Amerikanoen buruetan politika au ain ximplea izanik ere, praktikan ez da ain ximplea gertatu, edo bistan dago ego-amerika guztian sortu den yankirenganako erra.

Orrezaz gainera lehen adierazi degun demokrazi bitxiak ez du lotzarik izan mota guztietako diktadurekin sostengua eskeintzea, diktadura oriek antikomunismo itsuaren truke, besterik gabe. Orain diktadura orien alegiñak ez baitira aski komunismoaren erasoaldiri ezepto egiteko, taktika aldatu dute amerikanoak, oiko demokrazia eta militar indarraren karta nai dute jokatzen komunismoari atek itxitzeko.

Ego-Amerikako erriak, konturatzan ari dira ez dutela seguru libertate eta eskubide zabalgorik izango. Trujillo, Batista, Pérez Jimenez

eta auen tankerako edozein diktadura barrenean, ezen diktadura komunista batean baiño.

Baiñan demokrazia bera ere, amerikanoak nai duten bezela, ego-amerikan geienetan engainamendu bat besterik ez da izan. % 40 biztanle analfabetoak baldin badira, botoa izateko ematen zaioten eskubide (edo grazia) ori, ezin ditezke politika baten lehen xede bezela artu, edukazioaren, lanaren, bizitz-mailla egokiaren eskubidea eman eta lortu baiño lenagotik.

Origatik, nazio oietako batzuk adierazi dute Rio Janeiroko billera ortan, egokiago litzakela behar bada komunismoari kontra egiteko, gosearen, kultura-zezaren, mixeria eta explotazioaren aurka gogor ekiten, beste elburu izango lukean ez dago dudarik: E.E.U.U.'ko politika eta Ekonomoi Nagusitasuna gogortu militar indar bat baiño.

I. A. DORRONSORO

OSBORNE
Y Cía., S. A.

Coñac Veterano
Coñac Magno



Coñac zarrak eta onak



Eraria epela dagola?

FAGOR'ek oztuko du berela

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10 Urrut. 17751 Etzekoa 22700 DONOSTIA